



ABALTZISKETA

2016KO URRIAREN 13KO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19: 00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose Maria Egunez. Zinegotzia

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2016-07-12 Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. 2017 urterako indarrean izango diren zerga eta tasak onartzea.
3. Sasiain barrena eraberritzeko aurkeztutako dokumentu osagarria onartzea.
4. Alkatearen ebazpenak 49tik 56 bitartekoak jakinarazi eta berroneste.
5. Areto futbol elkarteko laguntza eskaera onartzea.
6. Udalaren makina zerbitzuak eskaintzeko aukera arautzea eta bere babesean deialdi irekia egitea herritarren artean.
7. Galderak eta eskaerak.

1- 2016KO UZTAILAREN 12KO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.



ABALTZISKETA

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-07-12ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartuzat eman da.

2- 2017 URTERAKO INDARREAN IZANGO DIREN ZERGA ETA TASAK ONARTZEA.

Idazkariak, 2017 urterako udal ordenantzen zergak eta tasak eguneratzeko txosten labur bat aurkeztu die zinegotziei:

UDAL ORDENANTZAK 2017

ZERGAK

1- Hiri ondasun higiezin zerga.

Gutxienekoabalio katastralaren % 0,04
Gehienekoa balio katastralaren % 4

Abaltzisketako kasuan %0,1915.

Adibidez , balioa katastrala 100.000 € bada, kuota , 191,50 € da.

2017 urterako balioa katastralak igo egin dira, eta tipoa berdina uztea geratu ginen.

HOBARIAK: Indarrean dagoen Arau Foralak onartzen dituen hobariak dira:

- Familia ugarien kasuan kuotaren %90 arte
- Babes publikoko bizitzak..... kuotaren %50 arte .
- Eguzki energia probetxamendua....kuotaren % 50 arte.



ABALTZISKETA

- Bizigune programako etxea.....kuotaren %50 arte

Abaltzisketako kasuan , familia ugarien hobaria aplikatzen da ,%90 a

2- Landa ondasun higiezin zerga .

Gutxienekoabalio katastralaren %0,3

Gehienekoa balio katastralaren % 1,1

Abaltzisketako kasuan % 0,7750.

Adibidez, balio katastrala 10.000,00 € bada, kuota 77,50 da.

3- Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga.

Foru Arauak ezarritako gutxienekoei %3 arteko igoera aplika daiteke.

Abaltzisketako kasuan, gutxieneko prezioei 1,28 ezarria dago.

HOBARIAK: Indarrean dagoen Arau Foralak onartzen dituen hobariak dira:

- Kuotaren %75 arte kontsumitzen den karburantearen arabera.
- Kuotaren %75 arte ingurunean duen eraginaren arabera.
- Kuotaren %100 arte ibilgailu historikoak direna, 25 baino gehiago.
- Kuotaren %100 arte Ibilgailuaren jabearen ezintasunaren arabera .

4- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

Foru arauak ezartzen duen gehinezko tipoa , aurrekontuaren %5a da.

Abaltzisketako kasuan tipo orokorra %5a da.



ABALTZISKETA

Ondoren, herrian erroldatuei %1 arteko hobaria aplikatzen zaie.

5- Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga

Onartua dago baiian ez da aplikatzen.

Hobaria, kuotaren %95arte aplika daiteke eskualdaketa heriotza dela eta zuzeneko sendien artean egiten bada (guraso , ezkontide, seme-alaba)

TASAK:

6- Zaborren bilketa

2016 urteko zabor erreziboak :

- Etxez-etxeko bilketa zerbitzua:
 - Etxe bizi bakoitzeko 75,00 €/urteko
 - Erroldatuta dagoen biztanle bakoitzeko 5,00€/urteko.
- Taberna eta antzekoak 339,13 €/urteko

Guztira, 2016ko lehen seilabetean 7.159,86 € jaso dira. (gastuaren %54,94)

Zerbitzuaren kostua: 2016ko lehen seilabetea:

Bilketa gastu finkoa	1.240,64 x 6	7.443,84 €
Tratamendu gastua (aldakorra)		5.587,10 €
Guztira		13.030,94 €

7- Hilerriko zerbitzua



ABALTZISKETA

Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa 600,00 euro.
Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa, heriotza aurretik urte bete erroldatuak 250,00 euro.

Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa 170,00 euro.
Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa, heriotza aurretik urte bete erroldatuak 80,00 euro

8- Udal jabari publikoa okupatzeagatiko prezio publikoa:

Udal jabari publiko okupatzeagatiko prezio publikoa: % 1,5

Zerga eta tasa bakoitzaren nondik norakoak aztertu eta hitzegi ondoren, zera ERABAKI DA AHO BATEZ :

- 1- 2017 urterako zerga eta tasak 2016 urteko berdinak izatea, eta inolako aldaketarik ez egitea.

3- SASIAIN BARRENA ERABERRITZEKO AURKEZTUTAKO DOKUMENTU OSAGARRIA ONARTZEA.

2016ko uztailaren 12ko Osoko Bilkuran, gai honen inguruan, azkenean honako bi argibide hauek eskatu ziren.

“**HIRU**.- 2016an ekainean aurkeztutako eranskinean jasotzen diren orma eta eraikina legeztatu aurretik, honako argibideak eskatzea:

- Baserriaren azalera , aurrez estatua , handikuntzarik badagoen ikusteko.
- Euste ormaren inguruan hartu behar diren neurri zuzentzaileak argitzea.

LAU.- Proiektuaren eranskinean jasotzen diren euste orma eta eraikina legeztatu ondoren, aurrekontuaren eraikuntza eta obra zergaren likidazioa



ABALTZISKETA

luzatuko da. Eta baimenik gabeko obra burutu denez, dagokion isuna ezarriko da, eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan.”

2016ko irailaren 12ko datarekin bi idatziei sarrera eman zitzaien udal honetan:

- 1- Euste ormaren inpaktua xamurtzeko huntz igokaria begetazioarekin estaliko duela agertzen duen idatzia sinatua aurkeztu du.
- 2- Eskatzailearen izenean, David Camarero Tejedor aparejadoreak sinatuta idatzia aurkeztzen da. Bertan, etxea erori aurretik, oinetako forjatua eta teilatua aldatzeko zenbait balorazio ekonomiko egin zituela, eta balorazio horiek egiteko neurketak zuzenean egin zituela, adierazi du Eta ondorioz, etxearen neurriak honako hauek zirela:

BEHE OINEAN, ikuilua irekia, 16,35X15,29	250,00 m2
LEHEN OINA, bizitza erabilera	112,60 m2
Ikuilua, irekia	137,40 m2
BIGARREN OINA . Ganbara irekia	250,00m2
TEILATUPEKO ERDI OINA	100,00m2

Guztira, Sasiain barrena baserriaren azalera 850 m2 etakoa zela.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta honako puntu hauek ikusten dira :

- 1- Sasiain barrena baserriaren berreraikitze eskubidea 850 m2etakoa da. Halere, onartu den proiektuaren azalera erabilgarria 709,73 m2etakoa da, eta azalera eraikia, proiektuan ez bada agertzen ere, 746,52 m2 inguru dela esan daiteke. Halere, lehen baserriak zuen azalera eraikia baino txikiagoa.
- 2- Plan Orokorrean, partzelaren barruan egin daitezkeen eraikinak, arautuak daude, ganaduaren estalpea edo baratzako tresnak gordetzeko, eta bere azalera ezarria dute.



ABALTZISKETA

Kasu honetan, lurrazpian egin duen eraikina, baratzako makinaria, tresnak eta materiala gordetzeko denak 57,72 m² ditu, arauak diotena baino gehiago.

Kontutan hartuaz, nekazaritza jarduera burutzeko dela.

Kontutan hartuaz, baserriaren berreraikitze proiektuan ikusi bezala, haseran zuen azalera baino txikiagoa berreraikitzen dela.

Kontutan hartuaz, lurrazpian geratuko dela eta alde batetik izango duela motorrezko sarbidea.

Aho batez, ERABAKI DA:

- 1- Sasiain barrena berreraikitzeko eskubidea, 850 m² baziren ere, berauek, proiektuan jaso bezala 746,52 m² etako azalera eraikia eta 709,73 m² etako azalera erabilgarria izatea. Eta, azalera txikiagoa denez, lurrazpiko eraikina, 57,72 m² etakoa onartzea. Eta Sasiain barrena berreraikitzeko aukera bi lan hauekin gauzatu eta amaitu ematea.

Ondorioz, esan denagatik, lurrazpiko probetxamendua legeztatua geratzen da, eta dagokion eraikuntza eta obra zerga ordaindu beharko du, eta isun arina, baimena eskuratu aurretik burutu duelako.

Eraikuntza eta obra zerga ordaintzeko, aurkeztutako aurrekontuan bi lanak elkartuta daude eta banatu ezin direnez, aurrekontuaren erdia lurrazpiko eraikinari egotziko zaio zerga ordaintze ondorioetarako 21.898,00€ (43.796/2) hain zuzen ere.

- 2- Euste orma legeztatu ezinezko eraikuntza da, eta ondorioz dagokion espedienteari hasera eman behar zaio. Indarrean dagoen Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintza Legearen 28 artikuluan, garbi jasotzen da lur ez urbanizagarrian, eraldaketa bidez berezkoak dituen balioak eta ingurumenari dagozkion zaintzak ez betetzea ez dela egokia. Eta neurri egokiak hartu behar direla inguruaren ingurumen ezaugarriak zaintzeko, bere horretan iraunarazteko eta, hala dagokionean, lehenarazteko.

Honetaz gain, ormigoizko orma hau herri bidearen ondoan eraikia dago. Bide honek urte asko ditu eta bide honetan karga duen ibilgailuak ibili



ABALTZISKETA

dira eta inolako mugimendurik ez da gertatu. Orma hau egin aurretik, lurra zegoen eta lur honek bere malda zuen bideari eusteko. Herri bidean karga duen ibilgailuak pasa direla eta orma honetan kaltea sortzen badute, Udalak ez duelako inolako erantzunkizunik agertu nahi da, eta orma exekutatu duenari, bere ardura izango dela azpimarratu nahi dio.

- 3- Obra baimenik gabe hasi direlako, arau haustea bete dela esaten da. Kasu batetan, lurrazpiako eraikina legeza daiteke, ikusten diren hainbat arrazoiengatik, aldiz, euste orma ez da onartzen eta legeza ezinezkoa da. Kasu batetan, arau hauste arin batean gaude eta beste kasuan arau hauste larri batetan.

Eta, ondorioz, udalari ordaintzea

LURRAZPIKO ERAIKINAGATIK:

Eraikuntza eta obra zerga 21.898,00 ren %5 a1.094,90 €

Isun arina 500,00 €

ORMIGOIZKO ORMAREN KASUAN:

Legezta ezinezkoa denez, espedienteari hasera ematea

Isun larria5.000,00 €

- 4- Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.

4- ALKATEAREN EBAZPENAK 49TIK 56 BITARTEKOAK JAKINARAZI ETA BERRONESTEA.

Udaleko Alkateak, aurreko Bilkuraren ondoren emandako ebazpenak honako hauek izan dira:

- 2016/49: Embalajes Salaberriaren fidantza itzulera, Erbeta eta Lizardiko bideen erabilera.



ABALTZISKETA

- 2016/50: M.L.ren fidantza itzulera, Zubeldia eta kareagako bideen erabilera
- 2016/51: uztaileko fakturen onarpena.
- 2016/52: Ministeritzari erantzuna ematea.
- 2016/53: Zerbitzu makinako ordainketa zatia egitea.
- 2016/54: Liburuzainaren kontratazioa egitea.
- 2016/55: 2016/01 eko kreditu aldaketaren hasera
- 2016/56: Ingeleseko klaseak emateko gela uztea.

Mahaikideek guztiaren jakinean geratu dira eta ontzat eman dituzte .

5- ARETO FUTBOL ELKARTEKO LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA

Areto Futbol Elkarteko laguntza eskaera jaso da. Elkartek honen helburua, hainbat herri txiki-txiki gazteek bildu eta futbol kirola egiteko antolaketak moldatzea da. Eta dagoeneko, Katalunia joan dira torneo jokatzeko.

Aurten, bederatzi haur joan dira kataluinara eta emaitza onak izan direla ikusita, 300,00 eurotako laguntza ematea proposatu da.

Mahaikideek ontzat eman dute 300,00 eurotako laguntza ematea.

6- UDALAREN MAKINA ZERBITZUAK ESKAINTZEKO AUKERA ARAUTZEA ETA BERE BABESEAN DEIALDI IREKIA EGITEA HERRITARREN ARTEAN

Abaltzisketako Udalak, desbrozaketa lanak egiteko makina bat eskuratu du eta beronen erabilera arautzeko baldintza plegua onartzea proposatu da.

Baldintza pleguaren edukia honakoa da:

ABALTZISKETAKO UDALAREN DESBROZATZE LANETARAKO MAKINA ERABILIAZ ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATAZIOA



ABALTZISKETA

ARAUTZEN DUEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN BALDINTZA PLEGUA.

1.- KONTRATOAREN XEDEA. Abaltzisketako udalak jabetzan duen desbrozaketa makina erabiltzeko aukera eta horrekin batera, udalari, herritarrei eta kanpo herrikoei zerbitzua gauzatzeko kontratazioa egitea.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA. Kontratuaren iraupena, bi urtekoa izango da, eta beste deialdi beharrik gabe, beste bi urtez luzatzea aukera izando da bi aldeen adostasunarekin.

3.- PARTAIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR BEREZIAK ORDAINKETARI DOAKIOEZ BERARIZKO AIPAMENAREKIN.-

BETEBEHARRAK.-

3.1. Deialdian parte hartzeko ezinbestekoa da desbrozaketa lanak egiteko udalaren jabetzako makina erabiliko duen traktorea jabetzan edo alokairuan erabiltzeko aukera izatea. Eta traktorearen ezaugarriak hauek izan behar dira:

- 100 zaldietako indarra gutxienez izatea.
- Traktoreak kabina izatea gidatzen duena babesteko.
- Makina gordetzeko aterpea izatea.

3.2. Desbrozaketa lanak egiteko erabili behar den traktoreak aseguro poliza egina izatea, hirugarrengo bati egin dakioken kalteari erantzun ahal izateko.

3.3. Traktorea gidatzen duenak bere gain izango ditu lankidetzaren arloan, gizarte segurantzaren eta lankuntzaren segurantzaren eta osasunbidetan indarrean dauden legedi guztiak betetzea, edo kontratatu dezakeen langilearena ere. Dagokion legedia ez betetzeak inolaz ere inongo erantzunkizunik ez dio ekarriko Abaltzisketako Udalari.

3.4. Traktorearen mantenimendu, aberi edo kalteak, jabearen kontu izango dira osotasunean. Aldiz, desbrozaketa makinaren aberiak udalaren gain izango dira, eta mantenimendu lanak, olioak aldatu, kutxillak aldatu eta mantenimendu orokorreko lanak izan ezik, hauek esleitua izan denaren gain izango dira.



ABALTZISKETA

3.5. Udalak herri bideen garbiketa egiteko eskaera luzatzen duenean, eta beste inolako eragozpenik izan ezean (eguraldia , bidearen egoera arriskutsua) hamabost egunetako epean, lanei hasera eman beharko die eta hilabete epean lanak amaitu.

3.6. Bidearen garbiketa lana esaten denean, bidearen bi aldeetan dauden malda edo zelaietako belarrak eta larrak moztu, esan nahi da.

3.7. Lanaren prezioa:

- Herritarrentzat: Traktore ordua bakarrik ordainduko dute 50€/orduko gehi B.E.Z.a. Desbrozaketa makina dohain izango da .
- Udalarentzat: Traktore ordua bakarrik ordainduko da, 50€/orduko gehi B.E.Z.a.
- Kanpo herrikoentzako, nahiz Udalek nahiz partikularrek, traktore orduaren prezioa esleituaren esku geratzen da eta Udaleko desbrozadora makinaren prezioa 100€/egun osorako.

ESKUBIDEAK .-

3.8. Lan honen esleipen eskubidea duenak, Udalak esandako herri bide, bide partikularrak eta herriz kanpoko beste bideetan lan jarduera egiteko eskubidea izango du Udalaren desbrozadota makinarekin, beti ere, Udalak ezarritako prezioetan.

3.9. Burututako lanak egiaztatu eta, egiaztatzen denetik kontatuta hilabete epean ordainsaria jasotzea.

4. ORDAINKETARAKO ERA.-

Udalarekin egiten diren lanak, egiaztatzen direnetik hasita hilebeteko epean ordainduko dira. Egindako lanak egiaztatzeko, Udaleko Alkate eta Zinegotziak lanen gainbegiraketa egingo dute, ondo dauden ikusteko. Onarpena ematen denean, lanen ordainsaria luzatu eta hilebeteko epean ordainduko da.



ABALTZISKETA

5.- KONTRATOAREN ADJUDIKAZIOKO ERA.- Lehiaketa sistema erabiliko da, eta deialdia herrian bakarrik egingo da, eta zerbitzu hau eskaintzeko eskumena herritarrek bakarrik izango dute .

6.- PREZIOAK.-

Udalak esandako lanak, nahiz bide, nahiz beste eremu, traktorearen orduko prezioa 50€ gehi B.E.Z.a.

Herritarren zerbitzuak, orduko 50 € /orduko + B.E.Z.a, traktorearen odua.

Herriz kanpoko zerbitzuak, traktorearen odua, esleituak ezarritakoa eta desbroza lanen makina, 100€/eguneko.

7.- KONTRATU UZTE ETA AZPIAKURA.-

7.1.- **UZTEA.-** Kontratistak ez du kontratorik hirugarren pertsoneri uzterik izango Udala honen baimena aurrez lortu gabe.

8.- BAIMENAK.- Kontratistaren kontu izango dira obrak egiteko beharreko diren baimen guztiak.

9.- PROPOSAMEN AURKEZPENA.- Interesa duenak, eta baldintza plegu honetan esandako baldintzak betetzen dituenak parte har dezake.

Izena emateko epea

10.- PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZPEN EPEA

Proposamenak, funtsez ondorengo ereduari atxekituko zaio:

..... Jaun/Andereakn bizi dena, E.N.A. zenbakiduna, hurrengoa azaltzen du:



ABALTZISKETA

LEHENA.- deritzaion hiaketa bidez kontratatzeko baldintza EKONOMIKO ADMINSTRATIBOEN ZERRENDA ezagutu eta onartzen dituela, eta traktorearen fitxa eta aseguro polizak eransten ditut .

BIGARRENA.- Eskaintza ekonomikoa eurotakoa izango da eta honako hobekuntzak proposatzen ditut:

11.- ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Proposamenak irekitzen direnetik kontatuta gehienez HILABETEKO epean adjudikazioa egingo da.

12. UDALAREN AHALMENAK

Udalari dagokio kontratua interpretatu, zalantzak argitu, interes publikoaren arabera aldatu eta abar.

13. APLIKAZIOZKO LEGERIA ETA GAI DEN JURISDIZIOA

Bide administratiboa amaitzen den akordioaren aurka Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietarako Salan tarteratu beharko dira errekurtsuak.

Abaltzisketan, 2016eko abuztuaren 25ean.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

Lehena.- Baldintza plegua onartzea, eta herritar interesatuei jakinaraztea deialdian parte hartzeko.



ABALTZISKETA

7.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Bat .- Alkateak adierazten du, Erein programara Ñañarriren eraberritze eta egokitze proiektua aurkezteko lanak burutu dituela Mozas Aguirre arkitektoak.

Esleipenean jaso bezala, oinarrizko proiektuaren zenbatekoa 14.000,00 eurotako B.E.Z.a kanpo zen.

Mozas Aguirrek lanen faktura aurkeztu du eta B.E.Z.a barne 16.940,00 eurotako da.

2016 urteko aurrekontuan , 622.933.00.01 partidaren gain ordainketa egin behar denez eta horretarako 2016 urtean 31.428,77 eurotako haserako aurrekontua dagoela kontutan hartuaz, ERABAKI DA:

- 1- Aipatu aurrekontuko partidaren gain, 16.940,00 eurotako fakturari onarpena ematearekin batera ordainketa egiteko urratsak ematea.

BI.- Lourdes Urkia Aranak, behin behineko baimenarekin egin den artoarentzako siloa legezztatzea.

2016ko uztailaren 18ko datarekin, Maria Lourdes Urkia Arana Andreak artoarentzako siloa egiteko baimena eskatu zuen.

Udalak, aldeko txostena luzatu zion, dagokion diru-laguntzak tramitatu eta aurrera jarraitu zedin, ondorengo hitzetan eman zelarik:

“Udal honetan indarrean dagoen Plan Orokorren arabera, aipatutako obra lur ez urbanizagarrian kokatzen da, eta bertan esaten denez, Zubeldi erdi baserriko jarduerarekin lotuta dagoen eraikuntza edo instalazioa dela esan behar da.

Indarrean dagoen legediaren arabera, behar diren urratsak eman eta ondoren, Udalak dagokion baimena eskuratu du, baina kontuan hartuaz, lehen dagoen baserriaren jarduerarekin lotura duela, ez da inolako arazorik ikusten, obra edo instalazioa baimentzeko.”



ABALTZISKETA

2016ko irailaren 2an irteera emanaz, idazkia zuzendu zen Aldundiako Landa garapen departamentura, eskaeraren berri eman eta bide batez txostena eskatu zen, azaroaren 24eko 82/1998 Foru dekretua betetzeko eta Aralar parke naturaleko eremua exekutatu zenez, jakinaren gainean jarri eta dagokiona bideratzeko eskatuaz.

Aldundiako Landa Garapen Departamentutik ez da gaur arte inolako txostenik jaso.

Idazkariak, beraiekin hitz egin eta, Mendietako Zuzendaritzako teknikariarekin hitz egin da eta txostenik ez duela luzatu, aurka esateko ezer ez duelako, eta onargarria delako. Eta, Landa Garapeneko Zuzendaritzatik txostena jasoko dela adierazi da, eta aldekoa izango dela.

Guzti honen aurrean, ERABAKI DA:

- 1- Lehen luzatutako behin behineko baimena, behin betiko izaerarekin onartzea.
- 2- Egindako lana legezztatzea eta Aldundiako Landa Garapen Departamentuko txostena espedientean jasotzea.
- 3- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

HIRU.- Juan Murua Jaunak, Ipintza berri baserrikoak (Arrillaga) udal ondasunen inguruan egindako alegazioak direla eta zenbait puntu zintzilik geratu zirela adierazi du eta honen ondorioz, Udalarekin hitzordua nahi duela. Udal inbentarioaren inguruan egindako alegazioak erantzunak daudela ikusi da. Kareaga aldetik Larrantz alderuntz dagoen bide baten inguruan Juan Muruak egindako proposamena Udalak ez zuen garbi ikusi eta inolako erantzunik gabe geratu zen. Bestetik, Juan Muruak proposamen berri bat egiteko asmoa ere agertu du.

Udalaren aldetik, egunen batetan hitzordua emateko geratu dira.



ABALTZISKETA

LAU.- 2015 urteko txerri festan , herriko lau lagun trikitixa eta panderoa jotzen jardun zutela eta hauen ordainketa egiteko dagoela. Bakoitzari 50 eurotako ordainketa egitea proposatu du Alkateak.

Mahaikideen aldetik, Alkatearen proposamena ontzat eman dute eta ordainketa egiteko geratzen da.

BOST .- Alkate dekretu bidez hasera eman zitzaion, 2016/01 kreditu aldaketa espedientearen berri eman da. bertan jasotako zenbait ordainketa aurrera eramateko ezinbestekoa dute kreditu aldaketa honi onarpena ematea, batez ere inbertsio atalei dagokionez.

Horregatik, Alkateak proposatzen du, gai zerrenda egon ez arren, hasera eman zaiola jakinaren gainean egonik, bertan agertzen den edukiari onarpena ematea.

Mahaikideen aldetik, gaia tratatu eta eztabaidatzeren alde agertu dira guztiak.

2016/01 kreditu aldaketaren espedienteak, kredituz hornitu beharreko partidak honako hauek ikusi dira:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.629.153.10.01	BEST. INBERTSI.:	0,00	7.184,98	7.184,98



ABALTZISKETA

2016	IRISG.BARANDILLAK			
1 0000.625.414.00.01 2016	ZERB.FUNTZ.INBERTS:BEHEKO KALEKO LOKALA	0,00	5.121,10	5.121,10
1 0000.210.163.00.01 2016	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTU:BIDEEN GARB.	1.300,00	4.000,00	5.300,00
1 0000.480.231.30.01 2016	FAMILIAK: GIZARTE LARRIALDIAK	0,00	430,40	430,40
1 0000.422.334.00.01 2016	BESTE ENTITATEEI EKARPENAK: ATARIA	0,00	500,00	500,00
1 0000.422.431.40.01 2016	BESTE ENTIT.EKARP: TOLOSALDEKO HILTEGIA	100,00	54,00	154,00
1 0000.481.335.00.01 2016	LUK.GABEKO ERAKUN: HERRIKO JAIK	6.500,00	50,00	6.550,00
1 0000.629.165.00.01 2016	BESTELAKO INBERTSIOAK: EGUZKI FAROLAK	0,00	34.848,00	34.848,00
1 0000.601.153.20.01 2016	AZPIEG.ETA URBAN.: HERRI BIDEEN ZOLADURA	52.857,54	2.523,07	55.380,61
1 0000.623.153.10.01 2016	ZERB.FUNTZION.INBERTS: MAKINA DESBROZADO	0,00	30.957,85	30.957,85
1 0000.221.165.00.01 2016	ELEKTRIZITATEA: KALEKO ARGIKETA	4.500,00	1.500,00	6.000,00
1 0000.221.933.00.03 2016	GAS HORNIDURA. OSTATUA	0,00	800,00	800,00
GUZTIRA		65.257,54	87.969,40	153.226,94

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.712.000.00.01 2016	HAZI FUNDAZIOA. EGUZKI FAROLEN LAGUNTZA	24.000,00



ABALTZISKETA

c	2 0000.720.000.00.01 2016	DIPUTAZIOA: HERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA	35.000,00
c	2 0000.720.000.00.08 2016	DIPUTAZIOA. MAKINA DESBROZADORA DIRULAGU	21.199,93
c	2 0000.722.000.00.01 2016	TOLOMENDI: HERRI BIDEAK	7.769,47
FINANTZAKETA GUZTIRA			87.969,40

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

ABALTZISKETA, 2016(e)ko irailaren 21(e)an

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Kreditu aldaketaren onarpena

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:



ABALTZISKETA

ABALTZISKETA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Kredituen aldaketa espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 8.910,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015an likidatutako sarrera arrunten % 0,88 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua.

Gastuaren araua

2015ko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 20,16 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



ABALTZISKETA

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	401.496,07
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2015ko interesak	889,29
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	98.870,08
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	301.736,70
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	481.135,40
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko interesak	600,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	117.969,40
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2016ko gastu konputagarria	362.566,00
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% 20,16

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,80 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

ABALTZISKETA, 2016(e)ko irailaren 21(e)an
Idazkari kontu-hartzailea

4.-IDAZKARIAREN TXOSTENA PLAN EKONOMIKOA ORDEZKATUKO DUENA

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaioketa Batzarrari, kontuhartzaileak sinatua, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



ABALTZISKETA

-2015ko aurrekontuaren likidazioan, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea, hain zuzen ere 85.040,13 eurotako da.
-2016erako zor publikoaren helburua betetzea, eta betetzen da.
-2016erako defizit helburua betetzea edo, beteko ez balitz, horren arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea, eta kasu honetan betetzen da eta diruzaintza gerakina ere ez da erabiltzen .

Eta, 2016rako ezarritako zor helburua betetzen dela ikusita, kreditu aldaketak egiteko diruzaintza gerakina ez dela erabili ikusita eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txosten hau egin du, batzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Idazkariak

Mahaikideek, aho batez **ERABAKI DUTE:**

Lehena.- 2016/01 zenbakia duen kreditu aldaketari behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez, hamabost egunetan jendaurrean jartzea, dagokionak bere alegazioak tarteratu ditzan.

Hirugarrena.- Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta ematea, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, 21:40etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak